

## Camara Jatetxera Mendiz mendi

Erarik onena Camara Jatetxera inguratzeko oinez duzue: zalantzarik ez.

Eguna ondo beteko duzue: ibilbide ederra aurretik egin, bazkari edo afari eder bati ekiteko.

Xuabe galdetu eskero, Jatetxean bertan eskura dezakezue dutxatzeko aukera!!

Hona hemen duzuen aukerak.

## Donostia Pasai San Pedro Ibilbidea

Kostaldetik doan eta Donostia Pasai San Pedrorekin lotzen duen errekueratutako bide berria da.

Groseko Mariaren Bihotza elizatik abiatzen da bidea, eta Luis Pedro Peña Santiago itsas-ibiltokia jarraitu behar da bukaeraraino. Ibiltokiaren amaieran bide bat zabaltzen da. Antzinako trenbide txikiaren arrastoak ikus daitezke bertan. Hor hasiko da, hortaz, ibilbidea. Monpaseko hondakinak, Kutrallako iturri eta garbitokia, Ataloi haitzeko kobak, Txoritxuluak amildegia, Altuko ibarra, 200 metroko tunel bat, Platako itsasargia, eta Pasaiaiko behatokia igaroko dira, Pasai San Pedroko ontziralekuan ibilbidea amaitu aurretik.

Platako Itsasargia igaro ondoren Pasai San Pedroko Senoko Itsasargirako jeisten den bidea bilatu eta hartu. Bide horrek itsasertzera eramaten gaitu, San Pedrorra, eta laister bilatuko dugu Donibanerako Enbarkaderoa, Casa Camara Jatetxea aurrez aurre dugula. Badia motorran igaro eta Camara Jatetxea berehala duzu, Enbarkaderotik 100 metroetara.

Ibilbide osoa balizatuta dago, eta bere ezaugarriengatik, oinetako egokiak erabiltzea eskatzen du. Bi igarobide zail ditu, baina horiek saihesteko dauden beste bide alternatibo batzuk jarrai daitezke. Ibilbide ederra da bere osotasunean, paisaia ikusgarriak begizta daitezke, hiru elementuek – itsasoa, zerua eta mendia – bat eginez.

**Ibilbidea** : Donostia-Pasai San Pedro.

**Iraupena** : 3.0 ordu.

**Luzera** : 13 kilometro inguru.

**Zailtasuna** : gutxi.

[www.euskaraz.net](http://www.euskaraz.net)



## HONDARRIBIA – PASAI DONIBANE

Hiru bide aukeran duzue.

*Jaizkibel gainik gain*: Guadalupe Elizatik jaizkibelera igo eta gainik gain, 5 ordu.

*Talaieroen bidea*: karteekin sinalizatua dagoena, 6-7 ordu.

*Itxasertz-itxasertzetik doana*: marra txuriz margoturik dagoena, 8-9 ordu, besteak baino gogorragoa da.

Bi herri hauek lotzen dituen 22 kilometro inguruko ibilbidea da. Hala, hasiera eta helmuga-puntua finkatuko duten bi herrien itsaso-kutsuaz gain, Jaizkibel mendiaren ezaugarri nabarmenenak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Era berean, giza-jarduerek eta historiaren hainbat gertaerek mendeetan zehar utzitako aztarnen berri izateko ibilbide aproposa da.

Inguruetako aspaldiko lanbideak, anaien arteko gerrateak, mugen ezarpena, itsasontzien bilakaera eta beste hainbat bitxikeri, Jaizkibelgo ipar-magalak barneratzen dituen erreka, larre edota lurmutur kirtenekin uztartzen dira. Finean, Gipuzkoako ekialdeko itsasertzak gordetzen duen natura eta kultura-ondarea modu erakargarrian erakusten duen ibilbidea da.

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2087/jaizkibel-itsasertzaren-lilura>

<http://mikiribar.blogspot.com.es/2011/10/hondarribia-pasai-donibane-itxasertzeko.html>

<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/ibilbideak/ibilbidea.php?Nzona=1272979498&&id=eu>

#### ESKALADA ESKOLA PASAI DONIBANEKO PUNTETAN

Hona hemen aukera oso ona: goizean eskalada egin Donibaneko Itsasargian ondoan, eta gero Camaran bazkari ederra.

Eskola txikia, polita, inguru zoragarria: Are harria, 27 bide, zaitasun ertainakoak.

<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/ibilbideak/ibilbidea.php?Nzona=1272979498&&id=eu>

#### MENDI GIDARIAK

Pasaiako inguru guztietara eramango dizuegu.

[www.mendiaketaherriak.com](http://www.mendiaketaherriak.com)

0034-948513233